

Interes orokorreko antolamenduak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2018ko otsailaren 12ko otsailaren 17rako**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

2018/02/12ko Estatuko Aldizkari Ofiziala

- Ebazpena, 2018ko otsailaren 1ekoa, Enpleguko Zuzendaritza Nagusiarena, janari-pasten industriaren sektorearen hitzarmen kolektiboa erregistratzen eta argitaratzen duena. **1901 xedapenak - 28 or.**

13/02/2018ko Estatuko Aldizkari Ofiziala

- Ebazpena, 2018ko urtarrilaren 25ekoa, Enpleguko Zuzendaritza Nagusiarena, hegaztien eta untxien hiltegien sektorearen hitzarmen kolektiboa erregistratzen eta argitaratzen duena. **1951 xedapenak - 50 or.**

13/02/2018ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

- Gipuzkoako orearen, paperaren eta kartoiaren fabrikazioaren sektorearen hitzarmen kolektiboko soldata berrikustea. **875 xedapenak - 5 or.**

II.- ANTOLAMENDU ARAUEMAILEAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2018/02/12

- **LEHENDAKARITZAKO ETA LURRALDE ADMINISTRAZIOETARAKO MINISTERIOA. Albaitaritza-osasuna.-** 50/2018 Errege Dekretua, otsailaren 2koa, zeinaren bidez garatzen baitira, ehiza larriaren jardueretan, giza kontsumorako ez diren animalien azpiproduktuak eta albaitaritza-osasuna kontrolatzeko arauak. **Disposición 1869 xedapena - 13 or.**

2018/02/13

- **ENERGIA, TURISMO ETA AGENDA DIGITALAREN MINISTERIOA.- Telekomunikazioak.-** ETU/114/2018 Agindua, otsailaren 8koa, zeinaren bidez aldatzen baita martxoaren 26ko CTE/711/2002 Agindua, abonatu-zenbakiak telefonoz kontsultatzeko zerbitzua emateko baldintzak ezartzen dituena.- **1915 xedapenak - 4 or.**
- **LEHENDAKARITZAKO ETA LURRALDE ADMINISTRAZIOETARAKO MINISTERIOA.- Ongarriak.-** Akatsen zuzenketa, Errege Dekretu honena: 999/2017 Errege Dekretua, azaroaren 24koa, ongarrizko produktuei buruzko ekainaren 28ko 506/2013 Errege Dekretua aldatzen duena. **1916 xedapenak - 2 or.**

2018/02/14

- **GORTE NAGUSIAK.- Tributuetan eta gizarte-neurriak.-** Ebazpena, 2018ko otsailaren 6koa; horren bidez arau hau baliozkotzeko akordioa argitaratzeko agintzen da: 20/2017 Errege Lege Dekretua, abenduaren 29koa, hainbat tributuetan eta gizarte-arloko premia besterik

neurri batzuk luzatzen eta onartzen dituen. 1966 xedapenak - 1 or.

- **GORTE NAGUSIAK.- Balore Merkatua.-** Ebazpena, 2018ko otsailaren 6koa; horren bidez arau hau baliozkotzeko akordioa argitaratzeko agintzen da: 21/2017 Errege Lege Dekretua, abenduaren 29koa, Espainiako zuzenbidea balore-merkatuaren arloan Europar Batasuneko araudira egokitzeko premiazko neurriei buruzkoa. 1967 xedapenak - 1 or.
- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA - Antolaketa.-** Akatsen zuzenketa, honako Errege Dekretu honena: 1010/2017 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa; horren bidez aldatu egiten da 2583/1996 Errege Dekretua, abenduaren 13koa, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren egitura organikoari eta eginkizunei buruzkoa eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusia partzialki aldatzen duena. 1971 xedapenak - 1 or.
- **JUSTIZIA MINISTERIOA.- Ordainketen judizioz kanpoko akordioak.-** Instrukzioa, 2018ko otsailaren 5ekoa, Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiarena, konkurtso-bitartekaria izendatzeari buruzkoa eta zordunaren datuak ordainketen judizioz kanpoko akordio bat lortzeko eta Konkurtso Atarian hasiera batean argitaratzeko jakinarazteari buruzkoa. 1993 xedapenak - 4 or.
- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA.- Administrazio-prozedurak. Kudeaketa informatizatua.-** Ebazpena, 2018ko urtarrilaren 26koa, Katastroko Zuzendaritza Nagusiarena; horren bidez onartu egiten da ordezkatzeko dokumentu normalizatua aitorten eta eskabide bidez sartzeko prozeduretan zein Higiezinaren Katastroaren Legearen testu bateginaren 11. artikuluan adierazitako sartzeko prozedura guztiak izapidetzearen ondoriozko administrazio-egintzak berrikusteko prozeduretan. 2011 xedapenak - 3 or.

2018/02/15

- **OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA.- Mendekotasuna duten pertsonak.-** Ebazpena, 2018ko urtarrilaren 15ekoa, Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunaren Estatu Idazkaritzarena: horren bidez argitaratzen da Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren eta Autonomia eta Dependentsiaren Arretarako Sistemaren akordioa, telelaguntza-zerbitzuaren edukia (oinarrizko eta aurreratua) zehazteari buruzkoa. 2143 xedapenak - 6 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2018/02/12

- **FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.-** Foru Gobernu Kontseiluaren 5/2018 Foru Dekretua, urtarrilaren 30ekoa. Onartzea 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, Araban autonomiarako eta mendekotasunari arreta emateko sistemako prestazio ekonomikoen gehienezko zenbatekoen eguneraketa: hau da, familia ingurunean zaintza emateko eta profesionalak ez diren zainzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoa, laguntza pertsonaleko prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa. 475 xedapenak - 2 or.

B.A.O (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2018/02/12

- **KULTURA, TURISMO, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA.** - 02-013/2018 Foru Agindua, otsailaren 6koa, kirolaren esparruan 2017ko ekitaldiko mezenasgoko lehentasunezko jardueren zerrenda onartzen duena. **946 xedapenak – 9 or.**

E.B.A.O. Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala: **Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala**

2018/02/14

- 2018/213 (EB) Erregelamendua, 2018ko otsailaren 12koa, Europako Batzordearena, elikagaiekin kontaktuan sartzeko berniz eta estalduretara bisfenol A erabiltzeari buruzkoa eta 10/2011 (EB) Erregelamendua substantzia hori elikagaiekin kontaktuan dauden material plastikoetan erabiltzeari dagokionez aldatzen duena (1) **41/6 xedapenak**

Kepa Bilbao Zubiatur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: informacion.juridica@mutualia.es



MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - 48009 BILBAO